



Dinbi Danba

Jazz doinu akustikoak

Uztaila jazz aroa da Euskal Herrian, urtero antolatzen diren jaialdiei esker. Nazioarteko izarrak etortzen dira hil honetan gurera baina, eta etxean zer? Etxean ere egiten da jazz. Dinbi Danba talde gipuzkoarra da horren adibide: *Cruce de cables* izeneko bigarren diskoa argitaratu dute Errabal zigiluaren eskutik. Aurrekoa baino akustikoagoa, uzta propioko kantuek eta zenbait bertsiok osatzen dute.

JON GURRUTXAGA

Argazkiak: Dinbi-Danba

DUELA BOST URTE Donostian sortu zen Dinbi Danba taldea. Orduko laukotea ondokoek osatzen zuten: Imanol Lorenzo (baxua), Roge García (bateria), Joserra Lorenzo (gitarra) eta Miguel Alonso (tronpeta). Jazz mundura pasa den hainbat talde bezalaxe, rock estilotik zetozen laukoteko zenbait kide. Lorenzo anaiak aurretik Txinataun izeneko bandan aritu ziren, adibidez. “Txinataunen amaiera aldera zenbait kantu instrumental konposatu eta zuzenean jotzen hasi ginen. Eta gutxinaka jazz munduan murgiltzen joan ginen. Joserra eta biok big

band batean ere jotzen genuen garai hartan. Eta jazz taldea osatzen hasi ginenean hango tronpeta-jolea taldea osatzera animatu zen”, azaldu du Imanol Lorenzo baxujoleak. Makina bat emanaldi eskaini ondoren 2003an beraien estreinako lana argitaratu zuten Gaztelupeko Hotsak diskoetxearen eskutik: *Dinbi Danba*. Handik gutxira Xpression!!! lehiaketako Jazz modalitatean lehen postua lortu zuten. “Lehiaketa zuzenekoan oinarritzen zen, emanaldia eskaini eta bideoan grabatzen zuten gero epaimahai batek erabakia hartzeko. Denbora luzez

ezer jakin gabe egon ostean lehiaketa irabazi genuela esaten deitu ziguten”, azaldu du Joserra Lorenzo gitarra-joleak.

Cruce de Cables

Dinbi Danba proiektu “irekia” dela uste dute taldeko partaideek. Hamazazpi urte inguruko esperientzia dute kideek eta egitasmoak etorri ahala gauzatzen joan dira, inolako presiorik gabe eta beraiek nahi izan duten bezala.

Disko berriarekin batera estilo eta formazio aldaketak izan dira Dinbi Danban. Oraingo honetan Lorenzo anaiek jazz akustikorantz jo dute beraien konposizioetan. Eta gitarra eta baxu elektrikoaren presentziarik falta ez bada ere, gitarra klasiko, akustiko eta flamenkoek leku garrantzitsua dute lan berrian. Miguel Alonso tronpeta-joleak ez du parte hartu disko honetan. Roge García-ren bateria goxotu eta osatzeko, berriz, bere anaia, Dani García, sartu da taldean perkusioekin. Laukote berriak beste hiru musikariren laguntza izan du *Cruce de cables* grabatzerakoan. Iñaki Alberrok txeloa grabatu du, Aintzane Lorenzok pianoa eta Arantxa Molinak bibolina. Diskoa Lorenzo anaiek Pasaia eta Errenteria artean duten Tumatxa estudioan grabatu da.

Kantu guztiak baxu eta gitarrarentzat konposatu zituzten Imanol eta Joserra Lorenzok, eta gero perkusioekin jantzen hasi ziren piezak. “Laneko lehen abestia, adibidez, gitarra elektrikoekin eta bateriarekin grabatua geneukan. Baina beste kantuak nola irtetzen ari ziren ikusita bateria kendu eta modu akustikoan grabatzea erabaki genuen. Eta egia esan aurreko bertsioa baino askoz gehiago gustatu zitzaigun. Eta azken kantuarekin antzeko zerbait gertatu zitzaigun, bateria kendu genion grabatutakoari eta aurrez egindako lan gehientsuena aprobetxatuz perkusioekin eta harizko instrumentuekin jantzi genuen”, azaltzen du Joserra Lorenzo gitarra-joleak. Beraz estreinako diskoan tronpetak zuen lekua gitarrak eta baxuak hartu dute. Izan ere, bi instrumentuok dira, orain bata, bestea gero,



Joserra eta Imanol Lorenzo, Dinbi Danbako gitarra eta baxu-joleak dira.

melodiez arduratzen direnak. Distortsioetatik soinu garbi eta goxoetara pasa dira. Eta erritmoa ere beste ikuspegi batetik landu dute, bateriaren erritmo sendoetatik kaxoi eta perkusioen soinuetara egin baitute salto. “Estilo aldetik ez dira lehenengoan kaleratu genituenetatik askorik aldentzen, kontua da soinua beste era batera jorratu dugula”, diosku taldeko baxu-joleak.

gure!
 artean!
 euskaraz

Dinbi-Danba

erdiko kaiera



Roge eta Dani García anaiak arduratzen dira Dinbi Danba taldeko perkusio instrumentuez.

Imanol Lorenzo izan da diskoko argazkiez arduratu dena. Diskoari izena eman dion azaleko irudiaren egilea ere bera dugu: “Diskoa argitaratu aurretik azaleko argazkia taberna bateko erakusketan jartzera nindoala anaiak *Cruce de cables* irudiarentzat izen ona izan zitekeela komentatu zidan. Gero argazkia diskorako aproposa zela iruditu zitzaigun”. “Alde batetik, irudia oso polita da eta tituluak berak hainbat interpretazio izan ditzake”, gaineratu du Joserra anaiak. “Lehenengo diskoa entzun eta orain bigarrena entzuten duenak ere izen ona dela pentsa dezake”, dio Imanolek barre artean, izan duten estilo aldaketari erreferentzia eginez. Txuri-beltzean aurkeztu diren argazkien dotoretasunaz gain, nabarmentzekoa da Errabal zigiluak argitaratzen dituen diskoen diseinu sinple baina fina: digipack formatuan, informazio orri gehiegirik gabe eta zigiluko gainontzeko diskoekin lotzen dituen maketazio estilo gardena.

Kantu propioak eta zenbait bertsio

*Cruce de Cables*en Robben Ford blues-jazz gitarrarekin *Life Song* kantu lasaia aurki dezakegu, baita jazz munduko hainbat musikariren

moldaketak ere, Sonny Rollins-en *St. Thomas*, Keith Jarrett-en *Lucky Southern* eta Pat Metheny-ren *The Red One*, hain zuzen ere. “Keith Jarretten kantua asko gustatu zaigu betidanik, bitxiena da ez dugula entzun sekula bertsio orijinala, partitura hartu eta jo egin dugu beti. *St. Thomas*, aldiz, bai, jakina. Bi perkusio instrumenturekin jotzeko moduko kantu aproposa iruditu zitzaigun gainera”, azaltzen du Joserra Lorezok. Gainontzeko pieza gehienak euskaraz bataiatu dituzte, lana irekitzen duen *Gauerdiko Agurra*, *Bizirik* eta *Zuk Egingo Zenukeen Beza-la* azken pieza, kasurako. Diskoaren amaiera aldera, makina bat bertsio izan dituen *Stairway To Heaven* pieza ospetsua ere aurki dezakegu. Led Zeppelin-en Robert Plant-ek abesten zuen melodiaz Lorenzo anaien gitarra eta baxua arduratu dira Dinbi Danbaren bertsioan: “Jazz moldaketarik ia egin gabe grabatu genuen kantua. Alegia, abestia den bezala aurkeztu dugu. Hori bai, melodia instrumentuek egiten dute. Gero tartean badira Led Zeppelinek zuzenean egindako zenbait moldaketa ere. Kantua oso polita da eta gustuko dugunez, bada grabatu egin dugu”. ■



Cruce de cables, Dinbi Danba taldearen bigarren lanaren azala.